

» **TELEGRAMA**

Demodé Quartet taldeak *Musika guztiak ia ia* ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 5ean Donostiako Antzoki Zaharrean: harrigarria da lau musikari hauek *a cappella* kantatuz egin dezaketena **STOP Post-rock gaua** Derioko Baserri Antzokian maiatzaren 6an: Böira eta Astralia taldeak zuzenean ikusteko aukera **STOP** Maiatzaren 5etik 12ra **Fant** jaialdiaz gozatzeko aukera izango da Bilbon: beldurrezko eta fantasiazko zinemaren zaleek galdu ezin duten zita **STOP** Iduzkilore antzerki taldearen **Telesforo ez da Bogart** antzezlanari maiatzaren 7an Muskildin: hau laguntasun handi baten hasiera izan daiteke...

» **KONTZERTUA**

Txaikovski

twist batekin



Montse Auzmendi

Tchaikovsky Symphony Orchestra

Zuzendaria:

Vladimir Fedoseiev.

Bakarlaria:

Varvara (piano-jotzailea).

Egitaraua: Txaikovskiren obrak.

Donostiako Kursaal Auditorioa.

Apirilaren 22a.

Donostiako Kursaal Fundazioak Txaikovski monografiko erabat atsegina oparitu zigun. Klasiko unibertsalak, publikoaren gustukoak, errazak entzuteko... Arrakasta segurua. Beraz, inongo arazorik ez txaloaldiak lortzeko. Baina kasu hauetan, betiko erreperitorioaren faboritoak eskaintzen direnean, zerbait gehiago behar da benetako interesa pizteko.

Aldi honetan, orkestra interesgarri batek jotzeaz gain, bi pertsonalitate berezi izan genituen taula gainean: Varvara Nepomniastxaia piano-jotzaile errusiarra, oso musikari diferentea, eta Vladimir Fedoseiev zuzendaria, berezko estiloa duena, dudarik gabe. Osagai hauekin, merezi izan zuen saioak, gustatu ala ez.

Txaikovskiren *1. Piano eta orkestrarako kontzertua, si bemol minorrean, op. 23* benetako goxokia da. Nork ez ditu gustuko lan honen melodia zabalak, ameslariak, une folkloriko distiratsuak, joko erritmikoak... Obra zaila

da bakarlariarentzat, dudarik gabe, eta beraz, interpretazio ona lortzeko behar da pianista trebea eta horrez gain, musikalitasun aparta duena. Varvara (hala da bere

izen artistikoa, abizenik gabe) ez da musikari arrunta, berak ez du publikoa axolagabe uzten. Jotzeko era nerbiaduna du, nolabaiteko antsietatea transmititzen du, eta hori ez da guztiz txarra. Musika "koskadaz" ateratzen zaio, modu bortitz batean. Jenioa du andreak. Baina, beste alde batetik, jotzeko era hau arriskutsua da. Eta hori sentitu genuen kontzertu hau interpretatzerakoan. Sarrera boteretsu eta ederra egin zuen. Diskurtso grinatsua eskaini zuen uneoro, baina garbitasuna falta izan zitzaion askotan, edo orkestrak estali zuen pianoren soinua beste batzuetan. Bestalde, kontrol pittin bat falta izan zen orkestra eta bakarlariaren arteko oreka lortzeko. Halere, esan bezala, publikoak disfrutatu egin zuen. Bis bat bota zuen Varvarak: *Bachen Sarabande*, polita, agian ezti-tsuegia

Bigarren zatian, beste klasiko bat entzun genuen: konpositore beraren *Zisneen lakua* balletaren zenbakietako aukeraketa bat. Lan honetan bai nabaritu zen Vladimir Fedoseiev zuzendariaren ikuspuntu berezia. Muturreraino eraman zuen zati bakoitzeko izaera, benetako interpretazio estilizatua lortuz. Vals leun eta erromantikoa entzun genuen; *Pas d'action* delako pasartean nabarmena izan zen kontzertinoaren *solo* zoragarria, eta erritmo bizi eta zorrotza eman zion Fedoseiev *Scène finale* zenbakiari. Propina pare bat egin zituzten, taxuz., saio osoa bezala. ■

Varvara Nepomniastxaia piano-jotzailea (Mosku, 1983).

Vladimir Ivanovitx Fedoseiev zuzendaria (San Petersburgo, 1932).

